

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

ZIENTZIA

Inurrien noraeza

AFRIKAN belarjale erraldoiak desagertzearekin batera, akazien eta inurrien artean dagoen erlazio sinbiotikoa aldatzen ari da. Gezurra badirudi ere, belarjaleen erasoak gutxitu ahala kolokan dago hainbat inurri espeziaren bizi-raupena.

Oro har, belarjale handiek akaziak dituzte gustuko, baina zuhaitz horiek badute armarik: gutxienez hiru inurri mota daude akazietan, belarjaleei eraso eginez zuhaitza defendatzen. Hori egitearen truke, akaziek babesla eta janaria ematen diete inurriei. Handienetan 100.000 inurri ere egon daitezke.

Science aldizkarian berriki argitara emandako artikuluan, Floridako Unibertsitateko Todd Palmer ikerlariak dio akazietako inurriak “desentrenatuta” daudela eta erasorako ahalmena nabar-

men murriztu zaiela. Ondorioz, beste inurri mota batzuk hasi dira akaziak kolonizatzen, eta horiek ez dute belarjaleen aurrean jarrera erasokorra agertzen. Hortaz, belarjaleak gutxitzearekin ekosistema oso bat alda daiteke. Oraingo ez dago ondorioak neurtzerik. |



Aspaldikoa da akazia eta inurrien arteko harreman ona.

Osasuna

JABIER AGIRRE

Ebakuntzen erdia ospitaletik at



Lehen baino ospitaleratze gutxiago egiten da kirurgia dela eta.

ORAIN URTE BATZUK ospitaleratze eta guzti egiten ziren ebakuntza kirurgikoen erdia modu ambulatorioan egiten dira gaur egun, gaixoak ospitalean geratu beharrik gabe, alegia. Horrela ageri da Espainiako osasunguneen azken estatistiketan. Bertan Espainiako Estatu osoko 752 ospitaleren datuak daude -296 publiko eta 456 pribatu-, 2005. urteari dagozkionak.

Urte horretan 72 milioi inguru kanpo-konsulta artatu ziren ospitale horietan -2001. urtean baino ia zazpi milioi konsulta gehiago, %11ko gorakada-. 24 milioi baino gehiago larrialdietan egin ziren, eta horietan, gaixoen %11 ingresatuta geratu ziren.

Bestetik, lau milioi ebakuntza kirurgiko baino gehiago egin ziren ospitaleotan. %88,9 aurrez programatutakoak

ziren. Jarduera kirurgikoa bere osotasunean hartuta, ebakuntzen %51,8 ospitalizazio eta guzti egin zen. Kirurgia handi ambulatorioak hartu zituen kasuen %23,7, eta azkenik, %24,4a ebakuntza kirurgiko txikiagoak izan ziren, modu ambulatorioan eginak horiek ere. Horrela, bada, ebakuntzen ia erdia ospitaleratu gabe egin ziren.

Jarduera kirurgikoak aurrerapauso nabarmena egin du azken urteotan. Datu ofizialek denbora tarte handiak behar dituzte informazioa bildu, prozesatu eta konparazio egokiak egiteko. Beraz, esku artean ditugun datuek 2005. eta 2001. urteko egoerak elkarrekin alderatzeko modua ematen digute. Ikus daitekeenez, eboluzioa positiboa izan da.

Lau urteko tarte horretan ebakuntza kirurgikoek gora egin dute, 2005. urtean 2001ean baino 459.413 operazio gehiago eginda -%12,2ko gorakada-. Igoerarik nabarmenena kirurgia handi ambulatorioaren eremuan gertatu zen, sail horren portzentajea %18,6tik %23,7ra igo baitzen. Eremin obstetrikotan ere gora egin du jarduera kirurgikoak azken lau urteotan: 2005. urtean erditze kopurua 2001ean baino %14 handiagoa izan zen, eta horietatik %25,2 zesarea bidezkoak izan ziren. Ospitale publikoetan zentro pribatuetan baino haur gutxiago munduratu ziren teknika horrekin.

INGENIARITZA

Energia metatzeko
modu hobeen bila

GAUZA JAKINA DA energia metaketa hobetzea ikerlarien aspaldiko erronka dela. Izan ere, zentral termiko edo nuklearretatik sortzen den energia asko galdu egiten da metaketa sistemak asmatu ez direlako, eta gure ibilgailuetan antzera gertatzen da.

Horren harira, Australiako Cleantech Ventures eta CSIRO enpresek urrats garrantzitsuak egin dituzte bateria adimentsuak diseinatuz. Egungo bateriak ez dira gai denbora luzez energia metatzeko, eta gordetako energia nahi baino azkarrago deskargatzen da. Gure automobiletako bateriak, adibidez, horrelakoak dira. Autoa aste batzuetan abiarazten ez badugu, bateria deskargatzeko arriskua dugu.

Arazoa larriagoa da energia berriztagarrien bitartez higitzen diren ibilgailuetan. Gauzak horrela, arestian aipatu enpresek egungo bateriak hobetzeko bideari ekin zioten, energia berriztagarrietan oinarritutako motoreak saldu ahal izateko.

Orain arte lortutako emaitzak onak izan dira, batez beste baterien iraupena hirukoiztea lortu baita, baina orain ekoizpen-teknologia lantzen ari dira, bateriek salneurri lehiakorrak izateko merkatuan. |



Autoetarako bateria adimentsuak ekoizti dituzte Australiako bi enpresatako ikerlariak.

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Zumitzagako ailargina

AURREKOAN NIOEN ontziak josteko eta lokarritze lanetarakoak sortzeko isatsa, *Cytisus commutatus*, gai egozia zela, zeta harren etxolak, sokak, kordak eta barrikauztaiak aitatzuz. Burdina nagusitua den gizarte honetan hari kateatutako hitzak ditugu goiengo, eta ni ere haien morroi. Ailarra omen da barrikaren uztaia, zur arteko bizkaieratarrak zuzendu dit. Iku-siak ditut, museo edo antzeko zokoren batean eta, batik bat, argazki zaharretan, gerrian zurezko lokarriak dituzten barrika eta barrikoteak. Eta, kaikua halakoa, gaztainazkoak irudikatuak nituen. Otargintzan ikusia, gaztainazko heldulekua duten lepotarretan, kopotarretan eta zareetan, horienaren tankerakoa irudikatu bakailao gaziz, bale-sainez edo sagardo beteta ontzien altzoan kaian pilatutako barriken bueltakoa.



ALBERTO ELOSEGI

Zumitzaren antzekoa da ailarra, baina bada aldea: zumitza bi aldeetatik landutako uztaia da, aldiz, ailarra alde bakar batetik. Azken horrek, landutako aldea barrura upelak estu-estu eutsiz, kanpoko aldera erakusten duen aldea bere azal eta guzti dago, landu gabea, basagoa; horregatik erabiltzen ote da ailarra hitza basatiaren sinonimo gisa bizkaieraz eta gipuzkeraz? "Umandi", Urestarazu`tar Andonik bere milaka eta milaka orriko asmo-hiztegi ederrean argitzen digu. Honela dio ailarraz: "Oyan eta landaetan landu gabe sortzen dan edozein landarea", horra basatiarekiko sinonimiaren iturria. Landare horiek erditik pitzatu eta zartatuta sortuko zituzten uztaietarakoak. Hona Andonik berak horretarako erabiltzen zen ailarraz dioena: "(Ereztun): iz. Upaen pipolak estekatzeko erabiltzen dan kurkurua". Bai dotorea!

Pipa, barrika, upa, barrikote, kupel, buko... Oraintxe da bada hauen artean ibiltzeko sasoia. Iazko sagarraren gozatu ezinak, aurreko urteko sagardo berak ahantzara zi eta aurtengo lehorrak, idazten duen aho sabai honentzat ezin goiengoagoak, dagoenerako etorriak dira eta datorrenean ez bada hurrengo ilbeheran botilaratu aurretik gozatzeko sasoia, adiskidea...

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
 Industrialdia 1, 20186 Lesarri-Oria
 Tel. 943 37 18 48
 e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA